

Azken bolada honetan administrazioa bultzatzen ari den eskoletako txertaketa kanpainaren gehikuntzaren aurrean, hurrengo lerroen bidez, Aske Bizi Arratien taldeak ezinbestekotzat jo du haurrak eta gazteak eskola eta ikastetxeetan txertatzearen kontrako gaitzespena adieraztea, eta horren gelditzea eskatzea.

Eskola irakaskuntza oinarri duen hezkuntza arloa izateaz gain, haurren garapen kognitiboa, soziala, emozionala, psikologikoa eta afektiboa babesteaz arduratu beharko litzatekeen erakundea da.

Aipatu beharra dago eskolak inoiz ez lukeela bete eta eman beharko osasun zentro batek ematen duen zerbitzua. Azpiegitura aldetik ikastetxeak horretarako prest ez egoteaz gain, ez dira haur eta gazteak txertatzeko lekua.

Ez dezagun ahaztu, haurrak txertatzeaz ari garela eta, gure ustez, horri merezi duen garrantzia eman behar zaio, beharrezkoak diren baldintzetan gauzatu behar delarik. Beti ere familiaren esparruan, erantzukizun hau familiarena izan beharko bailitzateke eta inoiz ere ez irakasleriarena.

Jakin badakigu gaizki ulertuak eta arazoak egon direla eta arazo hauek familia esparruan eta dagokion lekuan, hau da, osasun zentroan eginez gero ekidingo lirateke.

Beraz, hezkuntzari dagozkion kontuak eta osasungintzari dagozkionak erabat bereizita egon behar direlakoan gaude; hau da, nori berea.

Era berean, txertaketa garaian, haurrak eta gazteak txertatu ala ez erabaki eta baimendu aurretik, gurasoek argi izan beharko lukete zeintzuk izan daitezkeen txertoen albo-kalteak; izan ere, eskolatik bidaltzen dizkieten oharretan, txertoen bigarren mailako efektuak urriak eta, oro har, arinak direla aipatzen da, baina ez dira inondik ere zehazten. Horren aurrean, gurasoek ondo jakin beharko lukete zer sinatzen duten, jakitun egon daitezen euren seme-alabei zerbait gertatuz gero, beraiek izango direla horren erantzule bakarrak.

Halaber, txertaketak ikastetxeetan egiteak haurren datuen pribatutasunerako eskubidea urratzen du. Txertaketak norberaren historia klinikoaren parte dira, eta kasu honetan, haurren eta gurasoen pribatutasunean mantendu beharrekoak dira. Inork ez du zertan jakin nork hartzen duen txertoa eta nork ez, ezta zein txerto hartzen duen ere.

Horrenbestez, eta goian aipatutako arrazoiak direla eta, AskeBizi Arratien taldeak ikastetxeetan txertatzearen kontrako iritzi argia du, eta eskoletan eta ikastetxeetan egiteari uzteko eskatzen du.

Eta gonbidapena luzatzen dugu eskolak ere jarrera eta ekimen bera bidera dezan.

Zuen erantzunaren zain, agurtzen gara, AskeBizi Arratien.

[askebiziarratien@gmail.com](mailto:askebiziarratien@gmail.com)